

	ONIATINO UDALA
	Erregistro Data
2014 UZT 22	
SARRERA	IRTEERNA
1533	

Oñatiko EH Bildu eta EAJ-PNV udal taldeek Gazako erasoak berehala gelditzea eskatzen dute

Hiru gazte israeldarren desagerpen eta heriotza tragikoaren ondotik, palestinar biztanleriaren kontrako zigor kolektibo bat ari da burutzen, ehundaka lagun atxilotuta, milaka etxeen miaketa, suntsituak izan ez direnean, eta hamarnaka palestinar erailketa (haurrak barne), orduz ordu hasten doan heriotzaren balantze bat osatuz.

Eskalatze militarrik gora egin du du azken orduotan, gaueko bonbardaketekin, muga tanke eta soldaduen metaketarekin eta Gazatik Israelera jaurtitako misil eta suziriekin batera.

Israelek Gazaren kontra burututako erabateko erasoak, munduko zonalde populatuenerariko baten kontrakoa, proportzionaltasun, zuzentza eta borrokalarien eta zibilien arteko bereizketa printzipioak urratzen ditu, eta nazioarteko legeak dioen moduan guztiz arbuiatu behar da. Ezer konpontzetik urrun erasook lortuko duten bakarria egoera okertzea eta eskualdeko ezegonkortasuna handitzea izango da, honez gain, gatazkarekin zerikusirik ez duten biktima ugari sortzen.

Horregatik bortizkeriaren eskalatzea gelditzeko urgentziarako deia egiten du, eta NBERen ebazpenetan oinarrituriko, elkarriketaren eta negoziazioaren bidezko gatazkaren konponbidearen beharra berresten dugu. Baita Giza Eskubideen errespetu osoa kasu guztietan ere.

Hainbat indar palestinarrek sustatutako batasun nazionalako gobernuak mehatxu gisa ulertu beharrean, Israelek ulertzen duen moduan, aukera eta norabide egokian emandako urrats gisa ulertu behar da, Palestinako herriaren ahots bateratuak edozein irtenbide errazten duelako.

Nazio Batuek onartutako mugak dituen estatu palestinar bideragarri baten aitortza dakarren elkarriketa eta negoziazio prozesu inklusibo batek soilik, jar dezake konpontze bidean, sufrimendu izugarria eta eskualdean etengabeko ezegonkortasun eragin dituen gatazka hau.

